

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA

Zuzenketa, moldiztegiko material berezien hornitzaileak homologatzeko esparru akordio bat egiteko prozedura irekiaren epe amaierarena

Abuztuaren 10eko ALHAOn (89. zk.), 2016-02959 iragarkiaren bidez, deialdi baten iragarkia argitaratu zen, zeinaren bidez dei egiten baitzen Moldiztegirako gai berezien hornitzaileak homologatzeko esparru hitzarmen bat egiteko.

Administrazio errakuntza batengatik, iragarki hori ez zen argitaratu aurreikusitako egunean EAOn, baizik eta irailaren 7an.

Nola eta legez 15 egun natural igaro behar diren iragarkia EAOn argitaratzen denetik epea amaitzen den eguneraino, beharrezkoa izan da hura aldatzea, eta, hala, eskaintzak aurkezteko epearen amaierako eguna irailaren 22a izango da.

Gasteiz, 2016ko irailaren 8a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Eskuordetzaz, Zerbitzu Orokorretako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua
EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ